



EBAZPENA, 2024ko ekainaren 10ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketan eskaini beharreko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Helduen Hezkuntzako eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako behin betiko lanpostu hutsak zehazten dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsiteaz kanpoko irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen erkidego-mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren bigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz (2023ko abenduaren 1eko EHAA), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 8ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa horretan eskaini beharreko behin-behineko lanpostu hutsak argitaratu ziren.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu dira, eta, bestalde, akatsak antzeman dira lanpostu hutsen behin-behineko zerrendan, eta zuzendu egin dira. Honako hauek dira akatsak: ibiltari gisa agertu behar zuten eta baldintza hori adierazi ez zuten plaza jakin batzuen identifikazio okerra, Hegoa LHiko bi plazen identifikazio okerra, berezizat eta baldintzatat agertu behar zuten eta baldintza hori ere ez zen islatu, eta azkenik, Pedagogia terapeutikoko plaza jakin batzuk zerrendatik eta, beraz, eskaintzatik kanpo utzi behar dira, beren egoera berrikusi eta erregularizatzea eskatzen baitute, lanpostu horiek eskatzen dituzten baldintzak eta Lanpostuen Zerrendan agertzen dena bat ez datozelako.

Horrenbestez, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengo artikulua.- Ebazpen honen I. eranskinean argitaratzea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako behin betiko lanpostu arruntak, maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdian bete beharrekoak.

Bigarren artikulua.- Ebazpen honen II. eranskinean argitaratzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginen ikaskuntzarako geletako behin betiko lanpostu arruntak, maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdian bete beharrekoak.

Hirugarren artikulua.- Ebazpen honen III. eranskinean argitaratzea Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako behin betiko lanpostu hutsak, maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdian bete beharrekoak.

Laugarren artikulua.- Ebazpen honen IV. eranskinean argitaratzea Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan, Derrigorrezko



Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zereginen ikaskuntzarako geletan hutsik dauden izaera bereziko behin betiko lanpostu hutsak, maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdian bete beharrekoak.

Bosgarren artikulua.- Behin betiko lanpostu hutsen zerrenda horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrenda jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 10a.